

## ERRIRIK-ERRI

# Sagardo-kontuak

Sagardoa gure erriaren edaria denez, ta ain zalea naizenez, mundu orren inguruan dabilzan berriketak oso gogozkoak ditut.

Oraindik orain, dozen erdi bat sagardo-egillekin itzegiteko aukera izan det. Danak izketa berdintsuak esan zizkidaten: sagardo asko egiten zutela ta saltzen komeriak; gero ta gutxiago edaten omen da sagardoa eguneroko bizitzan; tabernariak ere, sagardo-egilleak saltzen dionetik doblean da geiagoan saltzen omen du, ta arrazoizkoa zala gero ta gutxiago edatea. Seireun pezeta botil sagardoa ordaindutakoa ezagutua nago. Alako lekua izango zan.

Erri xearen edaria izan da sagardoa. Baiña ostatu batera eguneroko bazkaria egitera dijoan langille batek ez dauka edaterik. Garai batean eguneroko edari genduna, kapritxotakoa biurtu da, ta kapritxoak bakan izan.

Beren ogibideari ertenbide bat aurkitu nairik dabilza sagardo-egilleak. Zerbez-botillaren neurriko botil-sagardoa ere sortu dute. Ortara jarriko ote gera?

Azken urteetan moda berri bat indartu da erriko jaietan: sagardotxapelketa edo probaketa jartzea, erriari naiko sagardo utsean eman ez. Festa-klase ori oraintsu arte oso erri gutxitan egiten zan. Orain esan liteke, ori egiten ez dutenak konta-errezak dirala.

Ta zer gertatu da? Sagardo-egille asko aspertzen asi dirala festa orrekin. Sagardo-egilleak pozik lirake, naiz berrogei ta amar edo irurogei botil utsean eman, ondoren sagardoaren eskerik balute. Baiña ez da orrela gertatzen. Ala diote:

—Debalde jartzen danean, orduan

bai jendea. Baiña ondoren sagardo eroatera iñor ez.

Joan dan urte, bi milla botil banatu omen zitun sagardotegi bakoitzak era ortara. Ta aurten ez dute eske gutxiago izango. Kejatzea arrazoizkoa dutela esango nuke.

Garai batean, emengo edariak jakiña genitun. Gaur, berriz, nork kontatu zenbat dabilzan?

Beste gauz batekin konturatua nago: gaurko gazte artean ez dala ardo ta sagardo-zaletasunik. Ura edango dute etxeko bizimoduan, andik kanpora egundoko nasketak egingo badituzte ere. Ori nolaz etorri dan? Bearbada guk aiña neke gabeko bizimodua daukatelako. Gosaltzeko garaian edo arratsaldekoan guretzat zato ardoa ederra izaten zan.

Sagardoari etorri zaion krisis-aldi ori ez ote zaio etorriko ardoari ere? Uste etzan gauz pranko etorria bada guregana. Argi ibilli, jaunak!

Jende eldu artean au entzuten degu sarri:

—Guk maite ditugun oiturak, gu bizi geran artean iraungo ditek.

Ori ala bada, gaitz erdi.

Ezagutu nun aiton pamatu oieta-ko bat. Onela zion sarri:

—Ni iltzen naizenean, beste danak il ditezela.

Il zan gizarajoa. Munduak aurrera jarraitzen du, ordea. Noiz arte? Nola? Etorkizunak esango digu. Sagardoakin asi naiz eta ondoren gauz asko nasi, zenbaitek duan jatortasunik nunbait ez nuan ikasi. Ardandegiko gisara ditut kontuak adierazi, sagardoazale danairi berriz biotzez milla goraintzi.

**Txomin GARMENDIA**